

Banku eta politikarien irabaziak

Krisi ekonomikoa edo nolabaiteko dezelerazio ekonomikoa dagoela esaten dute. Premia biziko ondasunen prezioek igotzen jarraitzen dute. Euriborra ere etengabe doa gora eta horrek hipotekei eragiten die. Soldatak ordea, mantendu egiten dira eta gehienez ere aurreikusitako inflazioa adina igoko dira datorren urtean. Gero eta gehiago dira hilean 800 euro baino gutxiago irabazten dutenak. Hala ere, badirudi banku eta agintariak ez diela horrek guztiak eragiten. Espainiako Estatuko Bankuak 14.141 milioi euro garbi irabazi ditu aurtengo lehen bederatzita hilabeteetan –bi bilioi pezeta baino gehiago!–, aurreko urteko garai berean baino %20 gehiago. Lau urtetan, eta urtarri eta iraila arteko tarte hartuta, Bankuaren etekinak %117 hazi dira. 2004. urtean 6.500 milioi euro irabazi zituen eta aurtengatik, 14.141.

Bankuetako lehendakariak –milioi askoko soldatak dituzten berak– eta euren ikerketa sailak dira hori ikusita ere langileen soldatak eutsi eta neurtzeko eskatzen dutenak. Gainera, gero beraien etekinerako erabiltzen dituzten enpresen lehiakortasuna argudiatzen dute horretarako lotsagabeki. Bestalde, EAEko parlamentarioek oinarriko errenta ez dute igo nahi lanbide arteko gutxieneko soldata (LGS) baino %1 gehiago –gaur egun LGSaren %88an dago, 502 eurotan, alegia–. Baina euren soldatak, lehendik ere txikiak ez, eta ezkutuak, %5,88 eta %6,24 artean igotzen dituzte. Krisia ordain dezatela besteek: langileek, pentsiodunak, alargunek, txiroek, etorkinek...

Juan Mari Arregi

“Bikain”, Euskararen Kalitate Ziurtagiria

EUSKO JAURLARITZAK aurkeztu du enpresen munduan eta esparru sozio-ekonomikoan euskararen etengabeko normalizazioa ebaluatu eta egiaztatuko duen Euskararen Kalitate Ziurtagiria. Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa eta erakunde publiko zein pribatuek eskuratu ahal izango dute. Horretarako euskararen presentzia, erabilera eta kudeaketaren gutxieneko maila egiaztatu behar dute. Hiru egiaztapen maila zehaztu dira: oinarriko mailakoa, erdi-mailakoa eta goi-mailakoa.

Xabier Azanza Euskararen Nafar Institutuko zuzendari

ZABALDU ZEN Mikel Aranburu izango zela Enai-ko zuzendari, Euskal Herria Irratiak egindako elkarrizketan Aranburuk berak baieztatu egin zuelako. Segituan ohartarazi zuen Nafarroako Gobernuo Hezkuntza kontseilari Carlos Pérez-Nievasek hautagai gehiago zituela. Bada Xabier Azanza (Bilbo, 1964) hautatu du Carlos Pérez-Nievasek Euskararen Nafar Institutuko zuzendari kargurako. Azanza Nafarroako Ikastolen Elkarte lehendakaria izan da 2002. urte-tik. Enaiko zuzendariaren lehen betekizuna Iruñerriko ikerketa soziolinguistikoa egitea izango da, Noain, Elortzibar, Aranguren eta Beriainera D eredu zabaldu behar den erabakitzeko.

Ardandegiek euskara gutxi

KONTSEILUAK Euskal Herriko 12 ardandegitako euskararen erabilera aztertu du. Errioxa, Nafarroa eta Irulegi izendapeneko ardoen etiketak eta webguneak dira aztertu dituenak. Guztien artean, Irulegi eta Aroa ardandegiek baino ez dute erabiltzen euskara botilen etiketetan eta Marques de Riscal eta Aroa ardandegiek, berriz, webguneetan erabiltzen dute euskara.

BAHEA

Miriam Urkiak *Berrian* esanak: “Informatikan gauza asko egiten ari dira euskaraz. Xuxen ortografia zuzentzailea ez ezik sinonimoen hiztegia egiten ere hartu du parte UZEIK. Word programan idazten ari zarela, euskalki bateko hitza den edota zein erregistro mailetakoa den adierazten du. Kontua da ez zaiola zabalkunde handirik ematen lan horri”.



Herriko plaza 7 - 20150 Aduna
Tfnoa: 943 69 34 81

Eguneko menua 9,50 €

Asteburuko menua 18 €

Asteburutan karta

Erronkak: kontsentsua eta Ziarretaren lidergoa

KONTSENTSUAREN haritik tiraka hautatu da EAren zuzendaritza berria, azken zortzi urteetan ez bezala. EAJrena ere molde beretik ateratu zen. Barne egoerari indarra ematen dion formula da eta egungo egoera politikoa EAk zein EAJK beharko dute kohezio maila sendoa. Kontsentsua kontsultaren erronkari aurre egiteko, besteak beste.

Unai Ziarreta ateratu da lehendakari eta Joseba Azkarraga idazkari nagusi. Datu esanguratsua Azkarragaren kasuan: ez du lortu hirugarren bidea finkatzea eta, EAko buruzagi historiko eta karismatikoa izanik ere, bera izan da zuzendaritzako kide berrietatik batzarraren sostengu gutxien lortu duena.

Begoña Errazti arrazoi pertsonalak argudiatu ditu lehendakaritzara ez aurkezteko, baina EAren ofizialismoaren sostengu eza ere suma liteke jarrera honen atzean. Iragan udal hauteskundeetan EAJrekin batera aurkeztearen alde agertu izanaren ondorioak.

Ziarretak oposizioa zuzendaritzan bertan dauka orain. Egia da asmatzen bada indar askoz handiagoarekin abiatuko direla erabakiak; egia da ere lehengo molde bereko zuzendaritzan baino gehiago kostako dela erabakiak ebaztea.

EAko lehendakari berriak egin ditu urte batzuk idazkaritza nagusian, baina lehen lerroan aritzeko oraindik zaildu gabeko politikari gisa agertzen da. Batzuetan lehendakaritzara modu behartu xamarrean ere iritsi dela irudi luke. Lidergoa finkatzea izango da bere barne mailako erronka nagusia. Kanpora begira, 2008ko urte korapilatsuan EAren zuzendaritza berriaren erabakiak

JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS



Unai Ziarretak hartuko du Begoña Erraztiren lekua lehendakari gisa eta Joseba Azkarraga izango da idazkari nagusi.

kontsentsuaren soinitik gidatzea.

Lehenbiziko erronka martxoko Espainiako hauteskundeetan dauka EAk eta koalizio abertzalearen aldekoa bada ere, ez dirudi EAJ, EA eta Aralarrek era lezaketen ekimen berriak aukera handirik duenik. Bigarren desafioa galdeketa da. Noraino joan nahi du Ibarretxe lehendakariak kontsultaren eremuan? Ekimenak oraindik lausotasunean jarraitzen du, baina EAk argi ditu berau sostengatzeko bere baitan izan behar dituen hiru printzipio nagusiak: kontsultagai izango den proposamenak erabaki eskubidea onartu behar du, eskubidearen gauzatzea bideratu eta lurraldetasunaren ateak irekiak izan behar ditu.

ETA-REN azken agiriak ere ez du guztiz argitu Capbretongo guardia zibilen heriotza, baina gertatu zenera hurbiltzeko pista gehiago ematen dituzte pasarteak azaltzeko erabiltzen diren bi berbak: enfrentamendua eta exekutatu. Agiriko *enfrentamendu* hitzaren testuinguruak ez du aditzera ematen guardia zibil eta etakideen artean tiroketarik izan zenik, enfrentamenduari kutsu orokorra goa ematen dio. *Exekutatu*-k, ordea, etakideek guardia zibilak ezagutu

egin zituztela adierazten du eta haiek hiltzea erabaki zutela. Aurretik kontrolatu eta atentatua prestatu zuten edo dena bat-batean gertatu zen, hor ez da argibiderik, baina ihes egiteko moldeak azken hipotesia indartuko luke.

Urtebete joan da iazko Barajasko T4-ko atentatutik gaurdaino eta EAren jardun armatuak lau hildako utzi ditu bidean. Sestaon joan den asteburuan

izandako atentatuak ere argi erakusten du gaur gaurkoz EAren posizioa non dagoen.

ESPAINIAKO Gobernuak ere argi adierazi du bere apustua errepresioan dagoela. Martxoko hauteskundeak irabazi arte bederen. PP eta PSOE estu doaz lehiara, baina Jose Luis Rodríguez Zapaterok irabaziko bide ditu hauteskundeak. Thomas Catan *The Times*eko Madrilgo korrespondentsalak bederen oso argi islatu du iritzi hori *Courrier International* eta *The Economist*ek 2008az elkarrekin ateratu duten prospekzio aldizkarian. Inkestek ere hori adierazten dute, baina tartea handia ez dela argi dago eta PSOEk bere boto emaileak mugitzeko PPK baino ahalegin handiagoa egin beharko duela ere bai.

Oraingoz bederen, errepresio judizialaren bideak kolpe latza jaso dezake Estrasburgoko Auzitegian. Ilegalizazioen inguruan ezker abertzaleko abokatuek jarritako helegiteak tramitera onartu izana urrats garrantzitsua da eta hala hartu dute alde guztiek. Hilabeteak beharko dira oraindik azken emaitza ikusteko, eta okerrena, ez dirudi honek eraginik izango duenik EAE-ANVren ilegalizazio urratsetan.